



-EN ARABERA



arabera postpos. (-en atzizkiaren eskuinean).
Dagokion izen sintagmaren eta beste zerbaiten
arteko adostasuna adierazteko erabiltzen den hitza.

Euskaltzaindiaren hiztegia



Zenbait adibide

Izen-sintagma + -EN ARABERA

- **Alfabetoaren ordenaren arabera** eman dute botoa.
- **Arloen arabera**, azpitaldeak osatu ziren.
- Hogei bat etxe bota zituzten atzo, **lekukoen arabera**.
- **Biomasa-metaketa-ereduaren arabera**, baso-ekosistema bat asaldatzeak zenbait leheneratze-urrats eragiten ditu.



Zenbait adibide

Bururik gabeko perpaus erlatiboa + -EN ARABERA

- Entzun **dudanaren arabera...**
- Denek **onartzen dutenaren arabera...**
- Iturri ez-ofizial batek aditzera **eman duenaren arabera...**
- Bertan **erein daitekeenaren arabera** erabakiko da ordaindu beharrekoa.
- Genomaren analisiak **erakusten duenaren arabera**, espezie diploideetan ere, argi ikusten da genoma-bikoizketaren arrastoa espeziearen eboluzioaren historian.

Adibideen iturriak:

- *Ehuskaratuak*
- *Ereduzko Prosa Gaur*
- *Euskaltzaindiaren hiztegia.*
- *Nola Erran hiztegi elektronikoa*



Zenbait kalko oker: galdetzailea + -EN arabera

***Nori galdetzen diozunaren arabera** erantzun ezberdina jasotzen duzu.

Halakoetan¹, esaldia berriz erredaktatzea beste biderik ez dago.
Esate baterako:

- Galdera nori egiten diozun, (horren arabera) erantzun ezberdinak jasotzen/jasoko dituzu.
- Erantzunak diferenteak izaten dira; nori galdetzen zaion, jakina.
- Bati galdetu besteri galdetu, erantzun ezberdina jasotzen/jasoko duzu.
- ...

¹ OHARRA

Zehar-galdera da '**Nori galdetzen diozun**' perpaus-osagarria. Gramatikaz kanpokoa da baina, zehar-galderei kasu-markak zein posposizioak eranstea: ***Nori galdetzen diozunaren arabera / diozunari /**

...



Zenbait kalko oker: galdetzailea + -EN arabera

***Norentzat denaren arabera**, txostena desberdin egituratu behar izaten da.

- Txostena norentzat den, ezberdin egituratu behar izaten da idazkia (/idatzia/azalpena).
- Txostenaren hartzailea nor den, modu batera edo bestera egituratu behar izaten da txostena.
- ...


***Nor denaren arabera**, tratu bat edo beste bat ematen zaie ikasleei.

- Nor den ikaslea, modu bateko edo besteko tratua ematen da/zaio.
- Ikasleak ez dira berdin tratatzen: ikaslea nor den izaten da gakoa.
- Ikaslea nor den, horrek eragin handia du ematen den/zaion tratuan.
- Ikaslea nor den: horren mendean dago tratua.
- ...



Erdaren interferentziaz sortuak dira aurreko egiturak. Baita beste hauek ere:

- ***Nor den(aren) arabera**
- ***Zer eskatzen duzun(aren) arabera**
- ***Nori esaten diozun(aren) arabera**
- ***Nola definitzen dugun(aren) arabera**
- ...



Esaldi okerrak dira horiek guztiak; izan ere, zehar-galderek ezin dute ez kasu-markarik ez postposiziorik hartu:

- ***Zer etorriko denaren kezka dauka Jonek.**
- ***Zer pentsatzen duenari buruz hitz egin dugu.**
- ***Saria nork ematen duenari garrantzia kendu diote.**
- ***Grafikoei begiratzuz gero, zer gertatu denaz ohartuko gara.**
- ...

Jakingarri gehiago, hemen:

Alberdi, X. (koord.); Altzibar, X.; García, J.; Larrinaga, A.; Landa, J. (d.g.). *Kalkoen behatokia*. UPV/EHU; EITB.

<http://www.ehu.es/ehg/kalkoak/?id=43>

Gramatika Batzordea (1999). "1.4.1.5. Zehargalderak ezin deklina daitezke". In *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-I)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 94.-95.

Gramatika Batzordea (1999). "1.4.3.2.b. Gauzak zeren arabera diren esaten digutenak". In *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-V (Mendeko perpausak-I)*, Bilbo, Euskaltzaindia, 118.-120. or.

Petirena, P. (2011): "7.3.1. Arabera". In *Morfosintaxiaren inguruko zalantzak eta argibideak*, Gasteiz, Eusko Jaurlaritzza, 189.-190. or

